



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

Mahastizaintza eta Enologia zerbitzua
Servicio de Viticultura y Enología

TXOSTENA: ARABAKO ERRIOXAKO MAHASTIEN ETA ARABAKO TXAKOLINAREN EGOERA, 2018/08/31

Abuztua benetan hilabete positiboa izan da Arabako mahastientzat, tenperaturak altuak izan baitira eta ez baitu euririk egin, eta hori oso onuragarria da oidioa eta mildiua kontrolatzeko; izan ere, gaitz kriptogamiko horiek bereziki latzak izan dira aurten, batez ere mildiua, abuztuaren hasieran izandako ezohiko prezipitazio handiak direla eta. Egoera meteorologiko zail horrek mahastizainak ahalegin handia egitera behartu ditu, bai lan ordutan, bai produktu fitosanitariotan, mahats mordoetan izan zitezkeen kalteak minimizatzen.

Tempranillo eta biura mahasti aurreratuenak, Arabako Errioxan azalerarik handiena hartzen dutenak, kolore aldaketa amaitzen ari dira orain. Gainerako motei eta eremu berantiarra goei dagokienez, zenbait egun falta dira oraindik kolore aldaketa prozesua amaitu eta mahats biltzea iristeko. Horrek esan nahi du aurreko kanpainan baino beranduago dabiltzala, aurrekoa ohi baino goizago egin baitzen, baina eskualdean tradizionalki egin izan den epean ia.

Egoera sanitarioa ona da, oro har, nahiz eta, badaezpada, oraindik ere tratamenduak egiten jarraitzen duten. Garrantzitsua da tratamenduak egitea baietan zauriak dituzten lurzatietan (harriabarragatik edo mildiugatik, aleak presioagatik hautsita, oidioagatik pitzatuta, sitsguneak etab.), horietan handiagoa baita botrytis izateko arriskua. Gaixotasun horrek eragindako infekzioa, ondoek ere eragin dezaketena, da orain kezka nagusia. Botrytisak, izanez gero, mordoan zati bat edo guztiak ustel ditzake mahats biltzea egin aurretik, eguraldia hezea bada.

Txingorrek eragindako edo mildiua dela eta oso kaltetuta dauden lurzatiak kenduta, uztaren aurreikuspenak onak dira, baina ikusi beharra dago irailean zer eguraldi izaten den, horren arabera izango baita bildutako mahats kopurua eta haren kalitatea. Errioxako JDKren Kontseilu Arautzailea gutuna bidaltzen ari zaie mahastizainei, mahatsa ken dezaten baimendutakoa baino etekin handiagoa izango dutela antzeman den lurzatietan. Halaber, duela egun batzuetatik, zenbait upategi eta mahastizain horixe egiten hasi dira, mahatsari heltzen laguntzeko, gaixotasunak izateko arriskua murrizteko eta, ondorioz, kalitatea hobetzeko.

Jatorrizko deituraren eremu goiztiarrean, Alfaron eta Aldeanueva de Ebron, abuztuko azken astean hasi ziren mahatsa biltzen. Arabako Errioxan, mahats zuria ez da, gutxienez, irailaren hamarrera arte bilduko, eta mota goiztiarrekin hasiko dira: tempranillo zuria, chardonnay, sauvignon blanc..., eta iraila erdialdera arte ez dira leku guztietan biura biltzen hasiko. Ardo beltzei dagokienez, iraila amaiera arte itxaron beharko dugu, ziur aski, eta baliteke biltzea urria osoan zehar egitea mahasti berantiarrenetan. Ikusita heldze prozesuan heterogeneotasun handia dagoela, aurreikusi dezakegu bilketa mailakatua izango dela, eta ondorioz, luze iraungo duela. Arabako Txakolinari dagokionez, abuztuan bide onetik doa, eta, beraz, badirudi egoera kontrolaturik dagoela arlo sanitarioan. Fenologia egoerari dagokionez, atzerapentxoak hauteman da urte arrunt batekin alderatuta, eta, beraz, bilketa ez da urrira arte, gutxienez, hasiko.

Laburbilduz, ondoriozta daiteke Arabako mahastien heldze prozesua ohikoa izaten ari dela eta uzta oparoa izango dela, baina oraindik ere ziurgabetasun handia dago. Hurrengo asteetako eguraldiak baldintzatuko du behin betiko bai uztaren kalitatea, bai kantitatea, bai Errioxan, bai txakolina egiten den eremuan ere. Espero dezagun, beraz, hasi berri dugun iraileko eguraldiak mahastizaintzat horren zaila eta neketsua izan den kanpaina onez amaitzea ahalbidetzea.

Guardia, 2018ko abuztuaren 31.

Mahastizaintza eta Enologia Zerbitzua